

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Behin betiko onartzea zerga ordenantzen aldaketa 2018ko ekitaldirako

Erreferentzia alfanumerikoa: Bo171211A. Zerga ordenantzak 2018ko ekitaldirako aldatzeko espedientea jendaurrean egon da 30 egunez 03762 zenbakiko iragarkia ALHAOn argitaratu (2017ko urriaren 25ean, 123. zk.) eta hurrengo egunetik aurrera.

Behin-behineko onarpenaren erabakiaren kontra ez da aurkeztu erreklamaziorik ez oharririk eta, beraz, behin betiko onartzen dira zerga ordenantzen 2018ko ekitaldirako aldaketa eta gainerako indarraldiaren luzapena.

Behin betiko onartutako aldaketa 2018ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta egun horretan hasiko da aplikatzen. 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean egongo diren zerga ordenantzen testu bategina Udalaren web atarian azter daiteke.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik, zerga ordenantzen aldaketaren testu osoa txertatzen da.

Behin betiko onarpenak administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gainera, bidezkotzat jotzen diren gainerako errekurtsu guztiak aurkeztu ahal izango dira.

Oion, 2017ko abenduaren 20a

Alkatea

EDUARDO TERROBA

Zerga ordenantzen aldaketaren testu osoa:

- 1. zerga ordenantza: ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- 2. zerga ordenantza: jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
- 3. zerga ordenantza: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.
- 4. zerga ordenantza: eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.
- 9. zerga ordenantza: hiri hondakin solidoak (HHS) biltzeko zerbitzu publikoagatik ordaindu beharreko tasa.
- 12. zerga ordenantza: establezimendua irekitzeko lizentzien tasa.
- 13. zerga ordenantza: hirigintzako lizentzien tasa.
- 15. zerga ordenantza: kirol eta gizarte-kulturako instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa.

1. zerga ordenantza: ondasun higiezinaren gaineko zerga

6. artikulua aldatzen da; haxe da testu berria:

6. artikulua

Zerga bilketaren kudeaketa eraginkorragoa eta merkeagoa izan dadin, kargatik salbuetsita egongo dira 2.000 eurotik beherako zerga oinarria duten hiri ondasun higiezinak.

Halaber, eta arrazoi beragatik, landa ondasun higiezinak ere salbuetsita egongo dira, baldin eta subjektu pasibo bakoitzak udalerrian dauzkan landa ondasun higiezin guztien zerga oinarria 500 euro baino gutxiago bada.

Eranskina: Tarifa

Karga tasa

B) Landa ondasunak % 0,6

2. zerga ordenantza: jarduera ekonomikoen gaineko zerga

7. artikuluko 1. idatz zatiko c) letra aldatzen da abenduaren 23ko 18/2016 Foru Araura egokitzeko (arau horrek uztailaren 19ko 43/1989 Foru Araua, jarduera ekonomikoen gaineko zergarena, aldatzen du); hona testu berria:

“c) Eragiketen bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena establezimendu iraunkorrean dihardutenek soilik aplikatu dezakete, baldin eta eragiketen bolumena 1.000.000 eurotik beherakoa bada.

Edonola ere, salbuespen hori aplikatzeko ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez edukitzea, ez zuzenean ez zeharka, letra honetan ezartzen den eragiketa bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresen ehuneko 25etik gorako partaidetzarik, salbuespen honekin: arrisku kapitaleko sozietateak eta funtsak, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 77. artikuluan zehazten dituenak, baldin eta partaidetza sozietateen xedea betetzearen ondoriozkoa bada.

Idatz zati honetan arautzen den salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketen bolumena abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 5. artikuluko 1. idatz zatian ezartzen duenaren arabera kalkulatu da.

2. Sozietateen gaineko zergaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboen eragiketen bolumena haxe izango da: aitorpena zerga zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa.

Zergen Foru Arau Orokorrek 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen dituen sozietate zibilen eta entitateen eragiketen bolumena zerga honen ondoriozko zorra sortzen den urtearen azken aurreko urtekoa izango da.

Zergaldia urtea baino laburragoa bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko, hark egindako jarduera ekonomikoen multzoa hartuko da kontuan.

Entitatea, merkataritza kodeko 42. artikuluari jarraikiz, sozietate talde bateko kidea bada, aurrean adierazitako magnitudeak taldeko entitate guztienak izango dira.

4. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakioken eragiketa bolumena hartuko da kontuan.”

3. zerga ordenantza: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

4. artikulua aldatzen da; hauxe da testu berria:

4. artikulua

1. Salbuespen kasuak:

Zergaren kargatik salbuetsita egongo dira:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsari edo herritarren babesari atxikitakoak.

b) Ordezkaritza diplomatikoen, kontsul bulegoen, agente diplomatikoen eta egiaztatutako karrerako kontsulatu-tako funtzionarioen ibilgailuak, herrialde bakoitzean menpekoak badira, kanpoan identifikatuta badaude eta elkarrekotasuna badute beren eremuan eta graduan.

Halaber, Espainiar estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta estatutu diplomatikoa duten haien funtzionario edo kideenak.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzarako edo zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren gainerako ibilgailuak.

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta ezindu baten izenean matrikulatu badaude.

Gainera, zergaren kargatik salbuetsita daude ezinduen izenean matrikulatutako 14 zaldi fisikaletik beherako ibilgailuak, haiek bakarrik erabiltzeko badira. Salbuespen hau egoerak irauten duen artean aplikatuko da, bai ezinduek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai ezinduak eramateko ibilgailuen kasuan.

Orobat, zergatik salbuetsita daude guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dela eta ehuneko 65eko ezintasuna edo handiagoa daukan pertsona baten ardura dutela frogatzen dutenen ibilgailuak.

Aurreko bi paragrafoetan ezartzen diren salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bakoitzari bat baizik ezin zaio aplikatu, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Letra honetan xedatzen denaren ondorioetarako honako hauek dira ezinduak:

1. Ehuneko 33 - 65 bitarteko minusbaliotasun gradua onartuta dutela, mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak. Honako hauek dute mugitzeko gaitasuna murriztuta: abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun gradua onartu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurarenak, III. eranskineko baremoko A, B eta C letretan azaltzen diren egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.

2. Ehuneko 65eko minusbaliotasuna edo handiagoa duten pertsonak. Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskineko baremoko A letrako mugitzeko gaitasun murriztuko egoeretako batean badaude eta ibilgailua gupil aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

f) Hiriko garraio publikoko zerbitzurako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, baldin eta bederatzita plaza baino gehiago badituzte, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako ikuskapenaren txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

h) Ibilgailu historikoak, halakoak direla frogatzen duen agiria dutenak; agiri hori bat etorri behar da ibilgailu historikoen erregelamenduari (uztailaren 14ko 1247/1995 Errege Dekretua, ibilgailu historikoen erregelamendua onartzen duena; BOE, 189. zenbakia, 1995eko abuztuaren 9koa).

2. Baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak:

Artikulu honetako 1. idatz zatiko e) eta g) letretan azaltzen diren salbuespenak aplikatu nahi dituztenek eskaera aurkeztu behar dute, eta harekin batera honako agiri hauek:

a) e) letrako salbuespena:

Ezindu baten izenean matrikulatutako ibilgailua, berak bakarrik erabiltzen duena:

- Zirkulazio baimenaren fotokopia.

- Arabako Foru Aldundiak edo organo eskudunak emandako ezintasunaren ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua. Ez da nahikoa izango balorazio taldeak emandako irizpen tekniko-fakultatiboa.

- Gidabaimenaren fotokopia (aurreko aldea eta atzekoa).

- Ibilgailuaren fitxa teknikoaren fotokopia konpultsatua.

- Eskatzailearen zinpeko aitortpena, ibilgailu salbuetsirik ez daukala dioena.

Ezinduak eramateko ibilgailua:

- Aurreko puntuan eskatzen direnak.

- Ibilgailuaren xedea frogatzen duten agiriak, Udalari aurkeztuak; honako hauek behar dira:

- Interesdunaren adierazpena.

- Enpresaren ziurtagiriak.

- Mugitzeko arazoak dituzten pertsonak eramateko ibilgailuek eduki ohi duten aparkatzeko txartela.

- Agintaritza edo pertsona eskudunak emandako gainerako ziurtagiri guztiak.

- Guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dagoen kasuetan, horren ziurtagiria.

b) g) letrako salbuespena:

- Zirkulazio baimenaren fotokopia konpultsatua.

- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua.

- Ibilgailuaren titularraren izenean egindako nekazaritzako ikuskapenaren txartelaren fotokopia konpultsatua.

Salbuespen hau ezin aplikatu izango da udal administrazioak egiaztatzen duenean nekazaritzarako traktorea, atoiak edo erdiatoia nekazaritzakoak ez diren produktuak edo salgaiak garraiatzeko erabiltzen dela, edo ez dela beharrezkoa nekazaritzako ustiapenerako.

c) h) letrako kasua:

- Ibilgailua historikoa dela egiaztatzen duen zirkulazio baimena.

3. Salbuespen eskaeraren ebazpena:

Salbuespena adierazi ondoren udal administrazioak horren ziurtagiria emango du.

Salbuespena ez bada eskatzen ibilgailuaren altarekin batera, eman eta urtebetera jarriko da indarrean.

4. Hobariak: irizpide orokorrak

Artikulu honetako hobariak interesdunek eskatu behar dituzte; eskaerak organo eskudunak ebatziko ditu.

Zerga honen hobariak aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da eskatzaileak egunean edukitzea Udalarekiko zerga betebeharrak.

Hobariak urtero eskatu behar dira, hainbat zergalditan berez berritzeko aukerarekin onartzen direnak ez beste guztiak.

Eskatzaileei nahitaez aurkeztu beharreko eskaeraren eredia emango zaie; horrekin batera eskatzaile bakoitzak bere kasuan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu.

Toki administrazioak behar diren datu guztiak egiaztatuko ditu ofizioz, eta beste erakunde batzuei egiaztatzen laguntzeko eskatuko die.

Zerga ordenantzak behin betiko onartu ondoren ebatziko dira hobari eskaerak.

5. Definizioak:

Artikulu honetan ezarritako hobariak aplikatzeko definizio hauek hartuko dira aintzat:

a) Errenta: familia unitatean jasotzen diren diru sarrera guztien batura, pertsona fisikoen gaineko zergaren kargapean ez dauden kideenak barne.

Horretarako, idatz zati honetan aipatutako hobaria aplikatuko den urtearen aurreko urtearen aurrekoan lortutako errentak hartuko dira aintzat.

Aurreko idatz zatian aipatutako errenta zehazteko honako hauek hartuko dira aintzat: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren datuak eta urtean familia unitateak izan dituen bestelako sarrerak, zergaren kargapean ez daudenak.

Errenta aitortpena aurkezten ez duten pertsonak, aurkeztu beharrik ez dutelako, honako agiri hauen bidez frogatu beharko dituzte beren sarrerak: 10T agiria, pentsioen edo laguntzen ziurtagiria eta sarrerak frogatzen dituzten beste edozein bitarteko.

Familia unitatean umerik badago eta gurasoak legez bananduta badaude, edo dibortziatuta, edo bien artean ez badago ezkontza loturarik, umeez (eta konpentsazio pentsioaz, behar den kasuetan) hitzartutako akordioaren kopia aurkeztu behar da. Betebeharrak ezartzen zaizkion gurasoak haietako bat betetzen ez badu, betetzeko agintzen duen epailearen ebazpena edo izapidetzeko eskatzen duen salaketa aurkeztu behar da.

b) Familia unitatea: familia unitatea zer den urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauak zehazten du 100. artikuluan.

c) Familia unitateko kide guztiek lortzen duten errenta hartuko da kontuan.

6. Hobarien bateragarritasuna:

Jarraian azalduko diren hobariak bateraezinak dira.

7. Eskaera aurkezteko epealdia eta hobariaren aldia:

Berariaz ezarrita ez dagoen kasuetan eskaera aurkezteko epealdia hobaria aplikatu nahi den urteko urtarrilaren 31ra artekoa izango da.

Hobarien iraupena urtebetekoa izango da.

8. Hobari kasuak:

Hauei aplikatu ahal zaie hobaria:

8.1. Ibilgailu klasikoak eta duela 40 urte baino lehen matrikulatutako beste batzuk:

a) Hobariaren ehunekoa, baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak:

I. Kuotaren ehuneko 50eko hobaria aplikatu ahal izango zaie 25 urte baino gehiagoko ibilgailuei, baldin eta frogatzen bada titularrak ibilgailuaren historia lantzea eta horren berri zabaltzea

xedetzat dituen kultura elkarte edo ibilgailu klub bateko kidea dela eta Oiongo udalerrian erroldatuta dagoela.

II. Kuotaren ehuneko 25eko hobaria edukiko dute zergaldiaren hasieran 40 urte baino gehiago dituzten ibilgailuek, baldin eta frogatzen bada indarreko IAT txartela dutela eta nahitaezko kopurua estaltzen duen aseguruia dutela.

Eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Indarreko zirkulazio baimena eta IAT (ibilgailuen azterketa teknikoa) txartela.
- Nahitaezko kopurua estaltzen duen aseguruaren frogagiria.
- I. kasuan, titularra ibilgailuaren historia lantzea eta horren berri zabaltzea xedetzat dituen kultura elkarte edo ibilgailu klub bateko kidea delako ziurtagiria.

8.2. Ibilgailu elektrikoak eta hibridoak:

a) Hobariaren ehunekoa, baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak:

a) Kuotaren ehuneko 25eko hobaria edukiko dute Co2 emisiorik sortzen ez duten ibilgailu elektriko hutsak (entxufagarriak). Ibilgailuok mono fuel ibilgailu elektriko moduan matrikulatzen dira, kontsumoa 125 Wh/Km dela ezarrita.

b) Ibilgailu hibridoek (motor elektriko-gasolinakoa, motor elektriko-diesela edo motor elektriko-gasezkoa) kuotaren ehuneko 25eko hobaria edukiko dute, baldin eta fabrian bertan homologatuta badaude eta isurtzen duten kutsadura murrizten duten katalizatzaileak, motaren eta modeloaren arabera, badauzkate.

Eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Ibilgailuaren zirkulazio baimena eta fitxa teknikoa.
- Ibilgailuaren fabrika ziurtagiria, hibrido homologazioa eta katalizatzaile egokiak dauzkalako ziurtagiria.

8.3. Familia ugariak:

a) Onuradunaren baldintzak eta hobariaren ehunekoa:

Familia ugariak zerga kuotaren ehuneko 25eko hobaria edukiko dute baldintza hauek betez gero:

- Ibilgailuaren titularra bere kargura familia ugaria izateko baremoan ezarritako gutxieneko seme-alaba edo tutoretzapeko ume kopurua daukan gurasoa edo legezko tutorea izan behar da, eta horiek guztiak egoitza berean egon behar dira erroldatuta.

- Turismoak bost plaza eduki behar ditu gutxienez, eta ezin ditu eduki 15,99 zaldi fiskal baino gehiago.

- Salbuespen hau ibilgailu bati soilik aplikatu daki.

- Familiako kide guztiak egon behar dira erroldatuta Oiongo udalerrian.

- Familia unitatearen errenta ezin da izan taula honetan ezartzen den zenbatekoa baino gehiago.

Familia ugariaren errenta, hobaria aplikatu ahal izateko

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK	ERRENTA, GEHIENEZ
3	28.783,64 euro
4	30.724,13 euro
5	32.291,43 euro

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK	ERRENTA, GEHIENEZ
6	33.547,76 euro
7	34.804,09 euro
8	36.047,98 euro
9	39.652,78 euro
10	43.618,05 euro
11	47.979,85 euro
12 edo gehiago	52.777,85 euro

b) Aurkeztu beharreko agiriak:

Eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Familia ugariaren ziurtagiria.
- Ibilgailuaren zirkulazio baimena eta fitxa teknikoak.
- Familiaren errentaren frogagiriak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, kide guztienak; autolikidazioa aurkeztu beharrik ez badago, errenta zenbatekoa dela frogatzen duen edozein agiri).

4. zerga ordenantza: eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga

5. artikulua aldatzen da; hauxe da testu berria:

3. Hobariak: irizpide orokorrak

Artikulu honetako hobariak interesdunek eskatu behar dituzte; eskaerak organo eskudunak ebatziko ditu txosten teknikoak aztertu ondoren.

Zerga honen hobariak aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da eskatzaileak egunean edukitzea Udalarekiko zerga betebeharrak.

Eraikuntza, instalazioa edo obra betearazteko agindu batek eraginda egiten bada, hobari hau ez da aplikatuko.

Eskatzaileei nahitaez aurkeztu beharreko eskaeraren eredia emango zaie; horrekin batera eskatzaile bakoitzak bere kasuan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu.

Toki administrazioak behar diren datu guztiak egiaztatuko ditu ofizioz, eta beste erakunde batzuei egiaztatzen laguntzeko eskatuko die.

4. Hobarien bateragarritasuna:

Jarraian azalduko diren hobariak bateraezinak dira.

5. Eskaera aurkezteko epealdia eta hobariaren aldia:

Hobaria lizentzia eskaera aurkezten denean eskatu behar da; eskaerarekin batera hobaria aplikatzeko beharrezkoak diren inguruabarrak gertatzen direla frogatzen duten agiriak aurkeztu behar dira. Agiriok espedientean sartu behar dira obra amaierako ziurtagiria eman baino lehen.

6. Hobari kasuak:

Obra hauei aplikatuko zaie hobaria:

a) Ehuneko 50eko hobaria aplikatu daiteke obra Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoak edo Arabako Foru Aldundiak sustatuta eta hirigintzako lizentziarekin egiten denean arlo jakin batzuetako ekipamenduetarako sailkatutako lurzoruan (hezkuntza, kultura, osasuna, laguntza –gizarte zerbitzuak-, administrazioa, herritarren babesa eta segurtasuna, hiriko zerbitzuak -gara-jeak, hiltegiak, hornidura azokak eta abar- eta hilerriak).

b) Ehuneko 50eko hobaria aplikatu daiteke eraikuntza, instalazioa edo obra eraikinen ikuskapen teknikoaren txostenak eskatuta egiten denean.

c) Ehuneko 50eko hobaria aplikatu daiteke, gehienez, eraikuntzan, instalazioan edo obran eraikinen ikuskapen teknikoaren txostenen eskatutako guztia bete dela frogatuz gero.

9. zerga ordenantza: hiri hondakin solidoak (HHS) biltzeko zerbitzu publikoagatik ordaindu beharreko tasa

Tarifa aldatzen da

Eranskina: tarifa

	EURO
Bizitegitarako hiri lurzorua, hiru hilean behingo kuota	16,77
Beheko solairua jarduera ekonomikorik gabe, hiru hilean behingo kuota	4,95
Beheko solairua merkataritza/zerbitzu/bulego jarduerarekin, hiru hilean behingo kuota	35,69
Hotel, ostatu etxe, jatetxe, taberna eta antzekoak, hiru hilean behingo kuota	54,68
Industria jarduera industriaguneetan	hutsik
Hondakindegiko isurketen kanona (A, B, C eta D motak), hiru hilean behingo kuota	1,34
Hondakindegiko isurketen kanona (E mota), hiru hilean behingo kuota	hutsik
Ibilgailua hiri hondakin gisa tratatzea eta tratatzeko baimendutako zentro batera eramatea, bertan suntsitzeko eta kutsadura ezabatzeke	220

12. zerga ordenantza: establezimendua irekitzeko lizentzien tasa

Tarifa aldatzen da:

Epigrafeak

I. Kaltegabeko jarduera irekitzeko lizentzia: 155 euro

II. Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, ingurumena babestekoak, ezartzen dituen izapideak egin beharrik ez dakarren jarduera irekitzeko lizentzia: 375 euro

III. Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, ingurumena babestekoak, ezartzen duenaren arabera sailkatutako jarduera irekitzeko lizentzia: 990 euro

3. Aplikazio arauak

a) Tasaren sortzapena lizentzia eskaera aurkezten denean gertatzen da edo, lizentziarik eskatu ezean, ondoko arauan aipatzen diren inguruabarretako bat gertatzen denean.

b) Ordainarazpen honen ondorioetarako honako hauek dira irekitzeko lizentzia lortu beharra duten establezimenduak edo instalazioak:

- Hasierako instalazioak, bai eta merkataritza, industria edo zerbitzuetarako erabiltzen diren makinak edo beste elementuak jartze hutsa ere, nahiz eta berehala ez abiarazi, funtzionatu edo ireki.

- Lokala aldatzea.

- Jarduera aldaketak, nahiz eta izena, titularrak edo lokala berbera izan.

- Jarduera handitzea; horrelakotzat hartuko da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuota igotzea, salbu eta igotzerak zergak aldatu direlako gertatzen badira.

- Lokalak handitzea.

c) Interesdunek uko egin ahal diote lizentziari emateko erabakia hartu ondoren. Erabakia-
ren jakinarazpena jasotzen denetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen eginez gero uko

lizentziari, ordaindutako tasaren ehuneko 80 itzultzeko eskubidea edukiko dute edo, bestela, tasa ordaindu ez badute, likidazioaren ehuneko 20 baino ez dute ordaindu beharko; erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik hogeita hamar eguneko pasatu ondoren egiten badiote uko lizentziari, baina hurrengo hiru hilak pasatu baino lehen, ordaindutako tasaren ehuneko 50 itzultzeko eskubidea edukiko dute edo, ordaindu ez badute, likidazioaren ehuneko 50 baino ez dute ordaindu beharko.

d) Lizentzia eman ondoko hiru hiletan establezimendua edo lokala irekitzen ez bada, lizentzia eta beragatik ordaindutako tasa iraungitza joko dira. Gauza bera gertatuko da ireki ondoren berriro ixten bada edo jarduera ekonomikoen gaineko zergan baja emanda badago sei hilabetez, ezinbesteko kasuetan izan ezik, hau da, ezinbesteko arrazoiengatik edo inguruabarrengatik establezimendua edo lokala itxi behar bada edo haren irekiera aipatutako aldia atzeratu behar bada.

e) Lizentzia eskualdaketei ez zaie kargarik ezarriko, baldin eta indarreko araudira egokitzeko lizentzia emateko prozedurako izapideak egin beharra eragiten ez badute.

f) Tasa hau autolikidazio prozeduraren bidez bildu ahal izango da.

13. zerga ordenantza: hirigintzako lizentzien tasa

Tarifa aldatzen da:

A) Lurrak zatitzea, finkak bereiztea edo elkartzea.

- 1.000 metro karratu edo gutxiago: (metro karratuko) 0,06 euro

- 1.001 - 10.000 metro karratu artean: (metro karratuko) 0,02 euro

- 10.000 metro karratu baino gehiago: (metro karratuko) 0,01 euro

B) Lokalak eta eraikinak ikuskatzea:

- Eskatzaileak proposatuta, inork salaketarik jarri gabe 60 euro

C) Hirigintzako zedulak, ziurtagiriak eta txostenak egitea:

- Hirigintzako zedula 60 euro.

- Irizpena eman beharra dakarten ziurtagiriak eta txostenak 35 euro.

D) Titulartasun aldaketa:

Aldaketa eragiten duen negozio juridikoak eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan likidatutako eskubideen ehuneko 5 ordainduko da.

E) Lizentziaren luzapena:

Likidatutako eskubideen eta tasen ehuneko 5 ordainduko da (8 euro gutxienez).

Tasa ofizioz likidatuko da obra burutzeko epealdia amaitutakoan, nahiz eta interesdunak luzapenik eskatu ez, baldin eta hirigintzako legeriak lizentzia luzatzeko aukera ematen badu.

F) Lehenengoz okupatzeko lizentziak eta beste baimen batzuk:

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan likidatutako eskubideen ehuneko 5 ordainduko da.

G) Aholkularitza akustikoaren txostena ingurumen lizentzia baten espedientean: 450 euro

H) Makinek (klimatizazioa, aireztapena, jarduerak eta abar) kanpora emititzen dutena neurtzea: 650 euro

I) Txostena etxebizitzaren arteko aireko zaraten kontrako isolamendua neurtu ondoren (UNE EN ISO 140-4:1999): 750 euro

J) Txostena fatxadako aireko zaraten kontrako isolamendua neurtu ondoren (UNE EN ISO 140-5:1998): 900 euro

K) Txostena lurreko inpaktuen zaraten kontrako isolamendua in situ ebaluatzeko entseguaren ondoren (UNE EN ISO 140-7:1999): 650 euro

L) Txostena instalazioek edo makinek babestutako barrunbeetan sortzen duten zaraten maila neurtu ondoren: 600 euro

M) Txostena jarduera egiten den barrunbe bateko zarata mugatzaileak egiaztatu ondoren: 500 euro

N) Kostu gehikuntza entseguak, neurketak eta egiaztapenak gauzez egiteagatik (20:00 - 04:00): 350 euro

15. zerga ordenantza: kirol eta gizarte-kulturako instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa

Tarifa aldatzen da:

Eranskina: tarifa

	EURO
A) La Espinako tenis pista ordubete erabiltzea	4
B) Arroyo I kiroldegiko frontoia ordubete erabiltzea	18
C) Arroyo I kiroldegiko frontoia bestelako ekitaldietarako erabiltzea, eguneko	308
D) Toki Alai frontoia ordubete erabiltzea	2
E) Udal zinetokiko ekitaldi aretoa bestelako ekitaldietarako erabiltzea, eguneko	300
F) Energia elektrikoaren kontsumoa, ordubeteko modulua	5
G) Oionarena udal kiroldegia.	
60 minutuko saioa, eremu erdia:	42
60 minutuko saioa, eremu osoa:	66
90 minutuko saioa, eremu osoa:	100
H) Bazterra aretoa.	
180 minutuko saioa	45
I) Hegoalde aretoa	
180 minutuko saioa	45

C, D, H eta I kasuetan eskatzaileak bere gain hartuko du edateko uraren kontsumoak, garbiketak eta abarrek eragiten duten gastua, eta fidantza bat ipiniko du gertatzen diren gastuei eta kalteei erantzuteko.